

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
2 positibo berri	1.596 hildako	0 positibo berri	518 hildako
2.279 positibo guztira*	16 UCIn EAEn	5.352 positibo guztira	6 UCIn Nafarroan
*Hernanin 63 Astigaragan 21		Sendatuak EAEn: 17.642. Naf: 8.182	

Konfinamenduko ikasketa errutina berezian, Kronika bidelagun Inmakuladako ikasleek

Alarma egoera ezarri zenetik, etxetik egunero irakurri eta komentatu dute eguneko Kronika, Lehen Hezkuntzako 6garren mailakoek. «Etxeko lan modura hasi zen jarduera, askok egunerokotasunean txertatu dute», dio haien tutoreak. Gaurkoa dute azkeneko klase eguna.

HERNANI INMAKULADA IKASTETXEA

Egoera desberdinak ekarri ditu osasun alarma egoerak, Koronabirusaren ondorioz ezarri zutenetik; batzuk zailak, beste batzuk bereziak, arraroak... Baina politak ere bai, zenbait. Eta ohitura berriak hartzeko ere balio izan du, kasu askotan.

Horietako bat da Inmakuladako ikasleak eta Kronika eskutik eraman dituenak, konfinamendu osoan zehar. «Behala txertatu genuen ikasketa errutinan, eta egunero-egunero, egunari hasiera emateko, Kronika irakurri dute etxean, eta ondoren komentatu», azaldu du Itziar Oterminek, Lehen Hezkuntzako 6garren mailako taldearen tutoreak; Euskara eta Literatura ere ematen die berak.

Egunero irakurri eta komentatu dute Kronika, Inmakulada ikastetxeko LH6ko 23 ikasleek, egunari hasiera emateko.

«Beti iruditu zait interesgarria, ikasleek Kronika irakurtzea, eta gelan landu izan dugu tarteka. Konfinamendua hasi zenetik, online egiteko moldatu ditugu gure klaseak guztiz, eta lanak modu digitalean egin dituzte ikasleek, baita guk zuzendu ere», azaldu du. LH6ko gela horretan, zehazki, Google-ren aplikazioak erabili dituzte ikas-

leek: Classroom, etxeko lanak bidali eta online zuzentzeko; Drive, koaderno digital modura; Hangouts, momentuko zailak argitzeko; Meet, bideo-deiak egiteko; Gmail, guraso eta ikasleekin modu formalean komunikatzeko... «Lehendik ere erabiltzen genituen zenbaitetan, eta nahiko erraz egokitu gara dinamikara».

Eguneroko dinamika horretan txertatu dute Kronika ere. Egunero, Kronika digitalera sarbidea bidali die tutoreak, Hangouts bidez, 23 ikasleei: Mikel B., Silvana, Moises, Casandra, Soufian, Galy, Ane H., Irati, Mikel H., Alain, June, Dey, Eunate, Noa, Manex, Aitana, Anetxu, Jaione, Christian, Loendy, Ethan, Izadi eta David. «Bakoitzak bere etxean irakurri du Kronika, eta ondoren, atentzia gehien eman dion albistea aukeratu, eta idatzizko komentario txiki bat egin dute. Askotan, albistearekin batera zegoen argazkia ere berbidali dute, interesgarria edo polita iruditu zaielako».

«Hasieran, Koronabirusari buruzko hainbeste albistean zuten gustukoena!»

Albistean aukeraketa horren inguruan, anekdota bat ere kontatu du Itziar Oterminek: «konfinamendu hasieran, albiste guztiak Koronabirusari buruzkoak zirenean, ikasleak desanimatu egiten ziren. Itziar, dena Koronabirusari buruzkoa da; desanimatu egiten gara albiste txarrekin!, esaten zidaten. Eta orduan, as-



Inmakuladako LH6ko ikasleak, tutoretza saioetako batean, telematikoki. Aurpegi 'arraroak' jartzea tokatu zitzaien orduan.

kok eguraldia aukeratzen zuten gustukoena. Oso eguraldi ona egin baitu konfinamenduan!, kontatu du irakasleak.

«Baina Koronabirusak albisteen monopolioa galdu duen heinean, albiste aukeraketa zabalagoa izan dute, eta egia esan, ia albiste guztiak komentatu dituzte», dio.

«Etxeko lan bezala eskatu gabe, asteburuetan ere Kronika irakurtzen dute askok»

Itziar Oterminek nabarmendu du, era berean, Kronika irakurtzeko ohitura hartu dutela ikasle horietako askok: «hasieran etxeko lan modura hasi zen jarduera hau, askok bere egunerokotasunean txertatu dute; eta asteburuetan ere, Kronika irakurtzen dutela esan didate, nahiz eta nik ez eskatu etxeko lan bezala».

Ohitura hori hartu izana,

ikasleentzat «oso positiboa» dela uste du Oterminek: «oso baliagarria izango da, beraien egunerokotasunean», adierazi du.

Gaurkoa, ikasturte bereziko azkeneko klase eguna

Irailtik martxora bitartean ohiko ibilbidea egin zuen ikastetxe guztietan, Inmakuladan bezala, 2019-2020 ikasturteak. Baina COVID-19 birusaren agerpenak, eta hari aurre egiteko alarma egoerak, hankaz gora jarri zizkieten ikasketa planak, denei. Telematikoki aritu dira lanean ordutik, eta luzaroan ahaztuko ez duten ikasturtea bizitu dute azkenean, berezia bezain arraroa guztientzat.

Gaurkoa izango du azkeneko klase eguna, aurtengo ikasturteak, Inmakuladako ikasleentzat. Eta gaurkoan irakurriko dute Kronika azkeneko aldiz, klaseko ariketa bezala, datorren

ikasturtera arte. Udarako oporraldiaz gozatzeko tartea izango dute orain, irailera bitarte; eta egoera alaiago horietan ere,

«Oso positiboa da Kronika irakurtzeko ohitura hartu izana, eta oso baliagarria izango da beraien egunerokotasunean»

haien eskutik joan nahi luke Kronikak, eguneroko bidelagun izateko. Beraz, Inmakuladako ikasleei ez ezik, Urumea bailarako guztiak gonbidatu nahi ditu, egunerokotasunean Kronika irakurri eta komentatzera.

Eta kontatzeko zerbait daukazuenean, zergatik ez jo guregana? Edozertarako izango dituzte Kronikako ateak zabalik! **K**



ESKAINZA
24 botilako kaxak: 50€
Nahieran egin ditzakezu kaxako nahasketak: Horia, IPA eta beltza
Bidalketak etxera, Gipuzkoa osoan
Eskara egiteko:
otsaihen@gmail.com 623 229 297





Larramendi, 15
943 55 00 46





TXINTXUA TABERNA
Zikuñaga bailara 76,
HERNANI
943 552
199 / 686
597 893

ORDUTEGIA Asteleheneetik larunbatera, terraza zabala.

ESKAINZAK
Gosariak eta hamaiketakoak,
menua, karta, plater konbinatuak, bokatak.



Zorionak, ama
85 urte

GAUR Giro nahasiarekin jarraituko du eguraldiak. Zerua nahiko lainotuta egongo da, baina noizean behin ostarte batzuk zabal daitezke
Min.14° / Max.19°

BIHAR Eguraldiak hobera egingo du zertxobait. Laino ugariarekin jarraituko du eguraldiak, baina euria egitea zailagoa izango da.
Min.14° / Max.18°

DOBERA EUSKARA ELKARTEA
LAGUNTZAILEAK
Hernaniko Udala
Astigarragako Udala
Euzko Legebiltzaria
Gipuzkoako Foru Aldundia
ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **Castilla** Urbietara, 7 (Hernani) **943 552941** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK
Euzko Legebiltzaria
Gipuzkoako Foru Aldundia

Ikusgai, gaur arte hondakin plastikoz egindako figurak

Herriko lau puntutan daude kokatuta eta Arantzazuko Ama-ko 3.DBHko lau ikasleren Ekofish proiektuaren barruan kokatzen dira.

ASTIGARRAGA UDALA

Arantzazuko Ama-ko 3. DBHko ikasleak Ekofish proiektua lantzen ari dira eta hori dela eta, lau ikasleak (Aimar Olasagasti, Ander Enciso, Beñat Garcia eta Beñat Otaegi) herriko lau puntutan (Kale Nagusia, Arrobitxulo parkea, Joseba Barandiaran plaza eta Foru enparantza) hondakin plastikoz egindako figurak ipini zituzten asteartean, eta gaur arte egongo dira ikusgai.

Ekofish kanpainaren helburua herritarrek itsas zaborren arazoaz jabetzea da, Mater itsasontzi-museotik itsasertzetik gertu dagoen arrantza esperimental baten bidez burutzen dena. Hortik abiatuta, Martuteneko Arantzazuko Aman 3. DBHko ikasleekin izen bereko proiektu bat burutzen ari dira.

Proiektua lantzeko taldeetan banatu dira, eta taldeetako batak hondakin plastikoeekin figurak sortu ditu, herrian ikusgai jartzeko.

Figurak egiteko erabili duten plastikoa bildutakoa da Figurak egiteko erabili duten plastikoa bildu egin zuten konfinamenduaren aurretik. Donostiako kala batera joan ziren



Herrian zehar jarri dituzte plastikozko figurak gaur arte.

harrien tartean zeuden hondakinak jasotzera. Ondoren, herrian ere, lurtean aurkitutako zenbait hondakin bildu zituzten. Erabili duten material guztia proiektua garatu dutenek eta ikaskideek jasotakoa da.

Plastikozko tapoiak ugariak Orokorrean plastikoa bera izan da gehien aurkitu duten hondakina. Eta gehienbat, plastikozko tapoiak.Horiekin figurak sortu zituzte eta guztiek dute lotura itsasoarekin eta itsas bizitzarekin. «Itsasoan dagoen plastiko kantitatearengatik erasotzak izaten ari diren animaliak dira, orokorrean» azpimarratu dute Aimar Olasagasti, Ander Enciso, Beñat Garcia eta Beñat Otaegik.

Milioika arrain eta espezie hiltzen dira harrapatuta

Figura hauekin lortu nahi dena da jendea itsasoko plastikoaren arazoaz jabetzea. Lau ikasleek esanetan «plastikoa jateagatik edo bertan harrapatuta geratzeagatik urtero milioika arrain eta beste hainbat espezie hiltzen dira, eta itsasoetako fauna txikitzen bada, gure planetaren %75a txikitzen da».

Proiektua landu ondoren, ondorengo mezua bidali nahi die herritarrei lau ikasleek: «Ingurugiroa zaindu behar dugu. Horretarako, ahalik eta hondakin gutxien sortu eta sortzen ditugunak bereiztea ezinbestekoa da». **K**

Ia 4.200 erosketa bonu saldu dira bi astetan

Bonuen salmenta etengabea da eta kanpainara atxikitu diren negozioak ere gero eta gehiago dira.

HERNANI UDALA

EutsiHernaniri herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko erosketa bonuen kanpainaren hirugarren astean murgildu da. Ekainaren 15a arte, 4.152 bonu saldu dira. Kanpainara atxikitutako negozioen zerrenda ere pixkanaka-pixkanaka haunditzen ari da, eta jadanik 151 negoziok bat egin dute #eutsihernaniri kanpainarekin.

Herritarrek ondo ari dira erantzuten herriko ekonomia laguntzeko asmoz sortutako ekimen honi. Bonua erosten duten askok eta askok familia osoa-

rentzat hartzen dituzte bonuak (seme-alaba txikia barne). Merkatariek ere gustura hartu dute ekimena, eta kanpainaren berri ez duten bezeroei jakinarazten diete bonuen ekimena eta batzuk bonua erostera joaten dira.

Guztira 10.000 erosketa bonu plazaratu ditu Udalak -150.000 euro- herriko merkataritza, ostalaritza eta negozio txikiak sustatzeko asmoz. Ekaina osoan erosi eta erabili daitezke. Erosleak 35 euro ordaindu eta 50 gasta dezake izena eman duten 151 negozioetan. Kanpainari atxikitutako negozioek kanpainaren kartel bat dute haien erakuslehoietan. Herriko merkataritza eta ostalaritza sektoreak biziberritzea eta tokiko garapen ekonomikoa bultzatzea du helburua, herritarrek dituzten erosteko ohituretan eragitea, herriko dendetan erostera animatzeko. **K**

Doberaren urteko batzarra, gaur Biterin

HERNANI DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Osasun alarma egoera tarteko, atzeratu egin den aurtengo urteko batzarra, Dobera Euskara Elkarrekin gaur egingo du arratsaldeko 18:30etan hasita. Bi modu egongo dira batzarra jarraitzeko. Biterin egingo da eta presentzialki parte hartu daiteke, beti ere neurriak betez, eta telematikoki ere jarraitu daiteke. Telematikoki jarraitzeko dobera@dobera.eus webgunera idatzi behar da eta jarraitzeko esteka bidaliko da. Bertan landuko dituzte, batetik, 2019 urteko balantzea, 2020 urterako aurreikusita zeuden egitasmoak zein ziren, eta orain arteko egoera zein den. Eta horiekin batera, zuzendaritza talde berriaren aukeraketa ere egingo dute. Izan ere, zuzendaritza taldea aldatzeko urtea da aurtengoa.

Hileta elizkizuna, igandean Astigarragan

ASTIGARRAGA ELIZA

Astigarragako parroki elkarrekin, martxoaren erditik maiatzaren lehen aste bitartean hil direnak gogoratuko dituzte hileta elizkizunetan. Hori dela eta, igande honetatik, ekainaren 21etik, uztailearen 5era arteko igandetan haien aldeko oroimen-mezak ospatuko dira. 10:30etako mezetan izango da hori eta lehenengo igande honetan Teresa Zapirain eta Hilario Agirregabiriaren hileta elizkizunak egingo dira. Ekainaren 28an Antonia Etxebeste eta Luzia Azkunerrenak eta uztailearen 5ean Angela Etxaberena.

Odol ematea gaur, Herri Eskolan

ASTIGARRAGA ODOL EMAILEAK

Gaur izango dute odola emateko aurreneko zita astigarrarrek, osasun alarma egoera hasi zenetik Herri Eskolan. 18:30etatik 20:30etara daukate hitzordua Astigarragako odol emaleek, alde aurretik ordua hartuta, telefonoz: 943 00 78 zenbakian. Ordua gaur goizeko 08:30etatik aurrera hartu behar da eta gogoratu ez dela ambulategian izango, Herri Eskolan baizik.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiojogia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

JASOTA BEZALA

Guztira argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefona. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen

Tabernen inguruan eta araeuz

Ekainaren 13an eta 14an, txotx denboraldian egon gabe, normaltasun berrira hurbiltzean, asteburuetako gauen berezko desordenak gertatu ziren Hernaniko Kaxkoan.

Arreta piztu nahi dugu indarrean dagoen araudia betetzeko bizi-rik dirauten Hernaniko taberna ugarien inguruan.

Ez dugu ulertzen ordea, zergatik udalak mesede egiten dien Kaxkoko taberna gutxi batzuei,

eta onartzen zaien indarrean dagoen araudia ez betetzea, baita koronabirusaren aurkako babes-neurri batzuk ere ez betetzea.

Ez da onartu behar hernaniko taberna gutxi batzuek mesede-tratua behar izatea bizirauteko, eta are gutxiago udal-ordenantzak eta ezarritako arauak ez betetzeak herritar askori osasun-eragozpenak edo nahasmenduak eragiten badiz-

kie gainera.

Araudia betetzeak errentagarritasuna murrizten badie edo errentagarriak ez badira, konpondu beharko duten arazo larri bat dute, garai berrietara egokitu behar izan duten beste enpresa batzuek edo gure baserriek konpondu duten bezala.

Ion Azpiazu Goñi Kaxkohobetu